



Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak

“Euskal antzerkiaren funtsak liburutegi eta artxibategietan”

2014ko Azaroak 20, osteguna.

Koldo Mitxelena Liburutegiaren egoitza, Donostia.

Goizeko 10:30ean

 **Baionako Mediateka. *Bilketa egitasmoa***
Marie-Andrée Ouret

Baionako mediatekak eremaiten duen “Bilketa” proiektua

Iparraldeko liburutegietan euskal antzerkiak dauden funtsak agertzen dira muntatua izana den Bilketa Web atarian. Orain osatzen eta egokitzen ari da, eta publikoari zabaltzea xedeetan da 2015eko lehen hilabeteetan.

Baionako hiriaren eraginez, erakunde publiko andana baten partaidetzarekin, proiektu honek Iparraldeko 20bat erakunde sarean biltzen ditu, izan daitezkeen hiri edo herri liburutegi, unibertsitateko, museo edo artxibategi liburutegi, dokumentazio zentro, elkarte edo eliza egoitzetako liburu bilduma.

Bilketa atariak liburutegi hauen euskal funtsen katalogoak biltzen ditu, eta ikerketa tresna baten bidez denak batean aztertzea aukera ematen du.

20 liburutegi hauen katalogoak ez dira osoki kargatuak, bizkitartean, agertzen dira oraindik Baionako hiriko eta euskal museoko ondare liburutegien aberastasunak, euskal antzerkiak, eta bereziki Iparraldeko idazleen obrak : Piarres Larzabal, Piarres Lafitte, Léon Léon, Paul Guilsou, Daniel Landart, Telesforo de Monzon. Euskal antzerkiak 2007az geroz prentsan agertu hainbat artikuluen erreferentziak daude ere bai.

Tresna honen xedea da ere euskal funts edo dokumentu ohargarrienak digitalizatzea, materialki begiratu nahian eta publikoarentzat eskuragarriago bihurtzeko. 3 urte hauetan liburutegi digital bat eraikitzen ari da. Bereziki baloratua izana den gaia da Xiberoko pastoralak, hauek utzi baitizkigute hainbat dokumentu : pastorala kaier, ikerzale edo bildumagileen artxibo, argazki, afitxa. Dokumentu horiek beren osotasunean kontsultagarri izanen dira Bilketa atarian, pastoralen gaiaz muntatuko den erakusketa birtual baten baitan.